

BIZITZA DUINAK ERDIGUNEAN

Zaintza lanak argitara

www.emagin.eus
943 590 902
emagin@emagin.eus


Martxoaren 8ko Greba Feministen karietara eta osasun krisi betean gauden honetan, indarra hartu du "Bizitzak Erdigunean" aldarriak. Zer esan nahi dugu, bada?

Ekonomia feministaren pentsamendu eta praktiketan oinarritutako hitzaldia prestatu dugu, tokian tokiko errealitate eta parte hartzaileei egokituta, zaintza lanen eta zaintzaileen historiaz zein orainaz jarduteko: zer da zaintza? Zergatik da, oraindik orain, zaintzea ikusezina? Zer aldatu da iragan mendetik hona eta zerk dirau? Zer nolako lan- eta bizi- baldintzak dituzte, Euskal Herriko, zaintzaileek?

Egungo zaintza-lanen erradiografia sakona egingo dugu: or-dainpeko lanean, familian zein komunitatean zaintzen dutenengan jarriko dugu arreta gogoeta egiteko euskal zaintza sistema duinaren eraikuntzan zein egiteko modu eta zerbitzu indartu beharko genukeen eta zein baztertu: etxeko langile egoiliarren esklabotza, erresidentziatako langileen borroka, etxez etxeko zerbitzuaren indarguneak, amatasun eta zahar-halduntze feminista, etab.

Burututako lanak:

- Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena (2020).
- Ataungo eta Oñatiko zaintzaileen genealogia feministak (1950-2020). (2020/2021)
- Zaintza lanen demokratizaziorantz. Gida eta glosategia (GFA 2020)



emagin